

ORDENANTZA FISKALA, HORNIDURAKO ZERBITZUAK USTIATZEN DITUZTEN ENPRESEK HIRIKO JABARI PUBLIKOKO LURZORU, HEGALKIN ETA ZORUPEAREN APROBETXAMENDU BEREZIENGATIK ORDAINDU BEHARREKO TASAK ARAUTZEN DITUENA

22. ordenantza

Oinarria

1. artikulua.- Ordainarazpen hau Nafarroako Toki Ogasunei buruzko martxoaren 10eko 2/1995 Legearen Lehen Tituluko IV. Kapituluko 7. Atalean xedatutakoari jarraikiz eta haren 12. artikuluan emandako baimenaren babesean ezarri da.

Zergapeko egitatea

2. artikulua.- Zergapeko egitatea da hiriko jabari publikoko lurzoru, hegalkin eta zorupearen erabilera pribatiboa edo aprobetxamendu berezia, hari, hodi eta galerien bidez egindakoa –argi-indarra, ura, gasa edo beste edozein fluido, telefonia finkoa, telefonia mugikorra eta komunikazio elektronikoko beste zerbitzuak bideratzeko–, barne hartuta hauen bitartez egindakoa: lineetarako paldoak, kableak, horma-beso, lotura-, banaketa- edo erregistro-kaxak, transformadoreak, errailak, baskulak, antenak eta salmenta automatikorako tresnak zein kasuan kasuko zerbitzua emateari lotuta egon eta gisa horretakoak diren beste batzuk.

Ordenantza honek arautzen duen tasa ordaintzeak espresuki dakar berekin beste ordenantzetan arautu eta hiriko jabari publikoko lurzoru, hegalkin eta zorupearen erabilera pribatiboak edo aprobetxamendu bereziak sortutako beste tasak ordaintzetik salbuestea, erabilera edo aprobetxamendu horiek hornidura-zerbitzuak emateko beharrezkoak diren kasuetan.

Aurrekoa gorabehera, tasa hau bateragarri izanen da toki-eskumeneko zerbitzuak eman edo jarduerak egiteagatik ezar daitezkeen beste tasekin, non aipatu enpresek haien subjektu pasiboak izan beharko baitute.

Zerga ordaintzeko betebeharra

3. artikulua.- Tasa urtero urtarrilaren 1ean sortuko da, eta zergaldiak urte naturala hartuko du, salbu erabilera pribatiboa edo erabilera berezia urtea hasita edo bukatu baino lehen egiten den kasuetan. Orduan, zergaldia horren arabera moldatu eta kuota hainbanatuko da.

Subjektu pasiboak

4.- artikulua.- 1. Hona zergadun gisara tasa ordaintzera beharturik daudenak: uraren, gasaren, elektrizitatearen eta telekomunikazioen (telefonia finkoa eta mugikorra) hornidura-zerbitzuak zein horien antzeko beste edozein zerbitzu ustiatzeko hiriko jabari publikoko lurzorua, hegalkina eta zorupea modu pribatiboan erabili edo era berezian aprobetxatzen dituzten enpresa ustiatzaileak, betiere aipatu zerbitzu horiek interes orokorrekoak badira edo biztanleak oro edo horietako anitz ukitzen badituzte.

2) Zehazki, subjektu pasiboak dira zuntz optikoa, kable bidezko telebista edo hiri jabari publikoan barna doazen edo hori zeharkatuz instalaturik dauden sare edo instalazioak erabili behar dituen beste edozein teknika baliatuta komunikazio-sareak ustiatzen dituzten enpresa, entitate edo administrazio publikoak.

3) Ez dute tasa ordaindu beharko zerbitzua emateko baliatzen diren sareen titularrak ez diren telefonia mugikorreko operadoreek, haiek erabili, eskuratu edo haiekin elkarri loturik egoteko eskubidearen titularrak izanik ere.

Hornidura-zerbitzuak emateko gainerako kasuetan, subjektu pasiboak izanen dira hala erabilitako sare edo azpiegituren titularrak nola sare eta azpiegiturak erabili, eskuratu edo haiekin elkarri loturik egoteko eskubidea dutenak.

4) Aurreko idatzi-zatietan sarturik ez dauden sare fisikoen enpresa titularrak dagozkien ordenantza fiskalek arautzen dituzten jabari publikoko lurzorua, zorupea eta hegalkina erabiltzeagatik sortutako tasei lotuko zaizkie.

Oinarria, tasak eta tarifak

5. artikulua.- 1) Kuota kalkulatzeko tasa aplikatzeko oinarria subjektu pasiboek Udalaren mugapean urtean lortutako fakturazioak eragindako diru-sarrera gordinen arabera zehaztuko da. Zerga-oinarria zehazteko irizpideak ez zaie aplikatuko telefonia mugikorreko operadoreei.

2) Fakturazioak eragindako diru-sarrera gordintzat jotzen dira entitate batek lortuak direnak Udal honen mugapean bere ohiko jardunean emandako zerbitzuen truke, betiere entitateari egotz dakizkiolarik. Multzo horretatik at, aparteko egintzek edo jarduerak eragindako diru-sarrerak baino ez dira geldituko.

3) Aprobetxamendu bereziaren gozamina bereganatzeko subjektu pasiboak besteren sarerik erabili badu, Udalaren mugapean urtean lortutako diru-sarrera gordinen zenbatekoari sarearen titularrari sarerako sarbidea edo interkonexioa edukitzeagatik ordaindu beharreko kopurua kenduta lortutako emaitza izanen da tasaren zerga-oinarria. Sare horien enpresa titularrek aurreko kontzeptuaren arabera lortzen dituzten diru-kopuruak zenbatu beharko dituzte beren diru-sarrera gordinen artean.

4) Ondorio horietarako, ez dira diru-sarrera gordintzat joko ez emandako zerbitzuak zergapetzen dituzten zeharkako zergak, ez hirugarrenen kontura kobratutako kopuruak, baldin eta tasaren subjektu pasiboa zer entitate den eta horren berezko diru-sarrerak ez badira. Halaber, ez dira joko fakturazioak eragindako diru-sarrera gordintzat Ekonomia Ministerioaren Energia Elektrikoa Ekoizteko Instalazioen Administrazio Erregistroko 1. edo 2. ataletan inskribaturik dauden instalazioetan erabili beharreko hornidura-zerbitzuen truke eskuratutako diru-kopuruak, betiere

zerbitzu horiek inskribaturik badaude araubide berezi honen arabera zergagarritzat jo daitekeen energia sortzeko lehengai beharrezko gisara.

5) Honako hauek ez dira jotzen fakturazioak eragindako diru-sarrerera gordintzat:

- a) Enpresek jasotako diru-laguntzak, ustiapenekoak zein kapitalekoak.
 - b) Kalte eta galerengatik galdatutako kalte-ordainak, salbu horiek konpentsazioa edo kontraprestazioa badira,
3. idatzi-zatian zehaztutako diru-sarrereren artean sartu behar diren kobratu gabeko kopuruengatik.
- c) Finantzazko diru-sarrerak, hala nola interesak, dibidenduak eta tankera horretako beste hainbat.
 - d) Enpresek beren ibilgeturako egiten dituzten lanak.
 - e) Enpresen ondarearen parte diren ondasunak eta eskubideak besterentzetik datozen kopuruak.

6. artikulua.- Tasaren zenbatekoa zedarrizten da aurreko artikuluan zehaztutako zerga-oinarriari % 1,5 aplikatuta.

Kudeaketa-arauak

7. artikulua.- Hornidura-zerbitzuen ustiatzaile izan eta erabilera pribatiboa edo aprobetxamendu berezia egin behar duten enpresek aurretik eman beharko dute horren berri, eta kasuan kasuko zerbitzua emateko gaitzen dituen tituluaren jabe izan behar dute.

Erabilera edo aprobetxamendu hori egin ahal izateko obrarik egin behar badute, enpresek behar den obralizentzia eskatu beharko dute.

8. artikulua.- Erabilera pribatiboek edo aprobetxamendu bereziek udal-ondasun edo udal-instalazioen suntsiketa edo narriadura ekartzen badute berekin, onuradunek –egokitzen ahal zaien tasaren ordainketa ezertan galarazi gabe– aipatu horiek guztiak berreraiki edo konpontzeko gastuen kostua ordaindu beharko dute, bai eta zenbateko hori aurretik gordailu gisa utzi ere.

Gordailu hori finkatuko da ukituta gerta daitezkeen ondasun eta instalazio guztien balioaren arabera, eta aurretik udal-teknikari batek txostena emanen du haiek zenbakietara ekartzeko.

Enpresek aprobetxamenduak nola edo halako jarraitutasun eta aldizkakotasun batez egiten badituzte –hiriko leku desberdinetan izanda ere–, gordailu orokor bat eratzea itundu ahalko da kudeaketa administratiboa errazte aldera, zeina eskudirutan ordaintzen ahalko baita, edo kreditu entitate batek edo elkarren bermerako sozietate batek emandako abal zein fidantza solidario bidez. Gordailu hori itunean bertan ezarritako aldietan berrikusiko da, eta aipatu aldietako aprobetxamenduek ustez eragindako kalteen arabera zenbatuko.

Gordailua indarra duten arauak edo lizentziaren baldintzak hausteagatik izan daitezkeen zehapenei lotzen ahalko zaie. Fidantza itzultzeko, horren aldeko txostena eman beharko da, non egiaztatuko baita indarra duten arauak eta lizentzia hartzeko baldintzak hertsiki bete eta lurzorua behar bezala konpondu dela.

9. artikulua.- 1) Hornidurako zerbitzuak ustiatzeagatik subjektu pasiboak diren enpresek hiru hilez behin aurkeztu beharko dute Udalaren mugapean erdietsitako diru-sarrerera gordinen gaineko aitorpena.

2) Aitorpena aurkeztearekin batera, ordaindu beharra duten enpresek dagokien tasa autolikidatu beharko dute, aitorpenaren xedea zer hiruhilekori egokitu eta hurrengo hilabetearen epean, eta ordainketa Udaleko Diruzaintzan egin, entitate kolaboratzaile baten bitartez edo tasa kudeatzeko Iruñeko Udala zein hitzarmeni atxiki eta horietan aurreikusitako eran eta epeetan.

3) Enpresa horiekin hitzarmenak sinatuta, aitorpenak aurkezteko epe laburragoak eta konpentsazio bidezko ordainketak egiteko formulak ezarri ahalko dira, Udalarari emandako zerbitzu edo egindako hornidurengatik eskatzekoak diren zorretan.

4) Iruñeko Udala atxiki ahalko zaie Nafarroako Udal eta Kontzejuen Federazioak tasa honen subjektu pasiboak diren enpresekin sinatutako hitzarmenei, betiere haien helburua tasaren kudeaketa eta diru-bilketa erraztea bada.

10. artikulua.- Aitorpen-likidazioa aurkezteko edo tasa epean ordaintzeko betebeharra ez betetzeak berekin ekarriko du garaian ordaindu ez izanak eragindako errekarquak galdatzea, edo premiamendu bidezko prozedura, bai eta ikuskapen-prozedurak abiatzea eta, behar izatera, kasuan kasuko zehapena ezartzea ere, Tributuei buruzko Foru Lege Orokorrean eta Kudeaketarako, Diru-bilketarako eta Ikuskapenerako Ordenantza Fiskalean ezarritakoarekin bat.